

Gure neoliberalak

Joxe Iriarte, 'bikila'
idazlea eta zutik-eko kidea

Esku artean daukat ELA sindikatuak banaturiko Gure neoliberalak izenburuko triptikoa. **Benetan**, pozgarria da sindikatu batek (batez ere nagusienetarikoa bada) gobernatzen gaituztenei buruz hain garbi eta klarki hitz egitea. **Izan ere**, Estatuarekin dugun gure ditxosozko gatazka horren inguruko gorabeherak beste arazoan estalgarri erabiltzen dira. Zein demokratena? Zein «besteekiko» adeitsuena? Zein herriarekiko jatorrena? Arazo garrantzitsuak, ez dut ukatuko, auzi horien konponketan sartzen ditugun orduak eta orduak **ez baitira gau erdiko ahuntzaren ezturen antzekoak**.

Alabaina, «zein eta zein demokratagoa», deman ari diren horien artean izugarritzko adostasuna dago politika ekonomikoan eta **batez ere** gizartegintzan. **Diferentziak diferentzia eta xehetasunak xehetasun** (ez dut ukatuko badaudela), lehendakari, ahalzun nagusia edo alkate, denek irizpide berberak erabiltzen dituzte eguneroko politikan (ELA sindikatuak zehazki salatzen dituenak). **Hala nola** benetako gizarte politikaren ordez propaganda edo itxurakeria erabiltzea (autopropagandan xahutzen dituzten diruak, **esate baterako**, Abiadura Handiko Trenaren inguruan, egiten ez diren gauza aski egin litezke); aurrekontuetan superabita dute helburu, eta ez pobrezia gutxitzea; negozio ona izan daitekeen guztia pribatizatu eta azpikontratatu egiten dute; uko egiten diote fiskalitatea aberastasuna banatzeko tresnatzat erabiltzeari (lanaren errentek eta zeharkako zergek eusten diote zergen pisuaren gehienari); subentzio garrantzitsuenak ugazabek eskuratzen dituzte, instituzioak eta patronala **hezur eta mami izanik**. **Horren guztiaren ondorioz**, aberatsen eta pobreen arteko lubakia inoiz baino handiagoa da, eta gure gobernariak hori estali egiten dute. **Badakigu** gure pobreek, edo bere lanetik bizi den orok Hirugarren Mundukoekin bere burua aberats ikus dezakeela. **Baina** hori ez da modua gure bizi-maila neurtzeko. Errenten eta kapitalen batez besteko aldeak kontuan izan behar dira. **Egun** aberatsak inoiz baino aberatsagoak dira. **Eta, gainera**, politikoen losintxa eta laudorioak jasotzen dituzte. **Okerrena da** ezkerreko zati handienak ere bere egin dutela «hau da gizarte sistemarik hoberena» leloa. **Eta** ahal dutena hobetzera mugatzen direla sistema injustu hau aldatzeari uko eginez Gobernuetara heltzen direnean (alde aurretik beren burua egokitzen dute errealismoaren aitzakiaz). Kudeatzaile zintzoak izatea dute helburu (horrek ez du irauten, ordea; sisteman aritzeak sistematik bizitzea dakar, eta, nahiz eta ez aitortu, usteldu egiten dira).

Kasu. **Niretzako oso diferentea da instituzioetan borrokatzea eta gobernuan sartzea, batez ere, neoliberalak agintzen duten gobernu batean**. **Esate baterako**, Eusko jaurlaritzan edo Nafarroako gobernuan (Espainiakoan zer esanik ez, baina horrekin bestelako arazoetan sartuko ginatke), edo aldundietan...

Eta **usteldu egiten dute hitzen eta kontzeptuen esan nahia**. Ongizatea, garapen jasagarria edo iraunkorra, bere errotara eramaten dute lelo bihurtuz. **Bitartean**, **zaborra gutxitzen alde egin beharrean** (multinazionalak bultzatzen duten «erabili eta bota» ohiturei lege egokiekin aurre eginez), errauste plantak eraikitzen dituzte; garraio publiko eta soziala bultzatu beharrean, Abiadura Handiko Trena bezalako proiektuak bultzatzen dituzte; eta abar eta abar.

Herriak erabaki dezala! **Baina** herriari ez diote uzten erabakitzen. Europako Konstituzioarekin (beste batean ariko gara horri buruz) gertatzen ari den bezala, oso lotuta baitaude gauzak nola erabakitzen diren eta zeinen interesen alde egiten diren. **Nolako erabakia, halako etekina**. **Eta** jakina, atzean beti polizia (Ertzaintza, Polizia Nazionalea, Guardia Zibila, bakoitza diferente, baina beti betikoen alde). Zergatik jipoitzen dituzte Izarreko langileak, Caballitoko langileak, AHTren aurka mugitzen direnak? Ai, gure neoliberalak. Hori bai. Oso demokratik.

2004-11-17
Berria/Iritzia

Gure neoliberalak

Joxe Iriarte, 'bikila'
idazlea eta zutik-eko kidea

Esku artean daukat ELA sindikatuak banaturiko Gure neoliberalak izenburuko triptikoa. _____, pozgarria da sindikatu batek (batez ere nagusienetarikoa bada) gobernatzen gaituztenei buruz hain garbi eta klarki hitz egitea. _____, Estatuarekin dugun gure ditxosozko gatazka horren inguruko gorabeherak beste arazoen estalgarri erabiltzen dira. Zein demokratena? Zein «besteekiko» adeitsuena? Zein herriarekiko jatorrena? Arazo garrantzitsuak, *ez dut ukatuko*, auzi horien konponketan sartzen ditugun orduak eta orduak **ez baitira gau erdiko ahuntzaren ezularen antzekoak**. _____, «zein eta zein demokratagoa», deman ari diren horien artean izugarritzko adostasuna dago politika ekonomikoan eta _____ gizartegintzan. **Diferentziak diferentzia eta xehetasunak xehetasun** (ez dut ukatuko badaudela), lehendakari, ahaldun nagusia edo alkate, denek irizpide berberak erabiltzen dituzte eguneroko politikan (ELA sindikatuak zehazki salatzen dituenak). _____ benetako gizarte politikaren ordez propaganda edo itxurakeria erabiltzea (autopropagandan xahutzen dituzten diruak, _____, Abiadura Handiko Trenaren inguruan, egiten ez diren gauza aski egin litezke); aurrekontuetan superbaita dute helburu, eta ez pobrezia gutxitzea; negozio ona izan daitekeen guztia pribatizatu eta azpikontratatu egiten dute; uko egiten diote fiskalitatea aberastasuna banatzeko tresnatzat erabiltzeari (lanaren errentek eta zeharkako zergek eusten diote zergen pisuaren gehienari); subentzio garrantzitsuak ugazabek eskuratzen dituzte, instituzioak eta patronala **hezur eta mami izanik**. _____, _____, aberatsen eta pobreen arteko lubakia inoiz baino handiagoa da, eta gure gobernariak hori estali egiten dute. _____ gure pobreek, edo bere lanetik bizi den orok Hirugarren Mundukoekin bere burua aberats ikus dezakeela. _____ hori ez da modua gure bizi-maila neurtzeko. Errenten eta kapitalen batez besteko aldeak kontuan izan behar dira. _____ aberatsak inoiz baino aberatsagoak dira. _____, _____, politikoen losintxa eta laudorioak jasotzen dituzte. _____ ezkerreko zati handienak ere bere egin dutela «hau da gizarte sistemarik hobereena» leloa. Eta ahal dutena hobetzera mugatzen direla sistema injustu hau aldatzeari uko eginez Gobernuetara heltzen direnean (alde aurretik beren burua egokitzen dute errealismoaren aitzakiaz). Kudeatzaile zintzoak izatea dute helburu (horrek ez du irauten, ordea; sisteman aritzeak sistematik bizitzea dakar, eta, nahiz eta ez aitortu, usteldu egiten dira). _____ Niretzako oso diferentea da instituzioetan borrokatzea eta gobernuan sartzea, _____, neoliberalak agintzen duten gobernu batean. _____, Eusko jaurlaritzan edo Nafarroako gobernuan (Espainiakoan zer esanik ez, baina horrekin bestelako arazoetan sartuko ginateke), edo aldundietan... _____ usteldu egiten dute hitzen eta kontzeptuen esan nahia. Ongizatea, garapen jasagarria edo iraunkorra, bere errotara eramaten dute lelo bihurtuz. _____, zaborra gutxitzeren alde egin beharrean (multinazionalak bultzatzen duten «erabili eta bota» ohiturei lege egokiekin aurre eginez), errauste plantak eraikitzen dituzte; garraio publiko eta soziala bultzatu beharrean, Abiadura Handiko Trena bezalako proiektuak bultzatzen dituzte; eta abar eta abar. Herriak erabaki dezala! _____ herriari ez diote uzten erabakitzen. Europako Konstituzioarekin (beste batean ariko gara horri buruz) gertatzen ari den bezala, oso lotuta baitaude gauzak nola erabakitzen diren eta zeinen interesen alde egiten diren. **Nolako erabakia, halako etekina**. Eta jakina, atzean beti polizia (Ertzaintza, Polizia Nazionalea, Guardia Zibila, bakoitza diferente, baina beti betikoen alde). Zergatik jipoitzen dituzte Izarreko langileak, Caballitoko langileak, AHTren aurka mugitzen direnak? Ai, gure neoliberalak. Hori bai. Oso demokratik.

2004-11-17
Berria/Iritzia

Gure neoliberalak

1- Koka itzazu hurrengo loturak testuan

Alabaina
Badakigu
Baina
Baina
Batez ere
Batez ere
Benetan
Bitartean
Egun
Esate baterako
Esate baterako
Eta
Eta, gainera
Hala nola
Horren guztiaren ondorioz
Izan ere
Kasu
Okerrena da

2- Azpimarratutako esaldietan akatsen bat dago. Jakingo zenuke zein den?

3- Ezagutzen dituzu “beltzez” dauden esamolde edo espresioak?

4- Idazleak erabilitako estrategiaren bat aipa dezakezu?